# 2018ko KUDEAKETA PLANA

Lan Lerro, Helburu, Proiektu eta deskribapen nagusiak

iraurgi Berritzen

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | HELBURUA |
|---|---|
| **Garapen Arloa** | Eskualde ikuspegitik arlo sozioekonomikoan inguru berritzaileen politikak eta estrategiak sustatzeko, proiektu estrategikoak garatuz udalen arteko elkarlana eta lan talde teknikoa koordinatuz. |
| **Garapen Gunea** | Iraurgi Berritzen osatzen duten eskualdeko udalen arteko elkarlana sustatu arlo sozioekonomikoan elkarlan proiektu estrategikoak garatzeko, kudeatzeko eta baloratzeko udal ikuspegitik; horretarako urtean zehar lan bilerak antolatu adosturiko dinamikaren arabera, gai konkretuen monografikoak aztertzeko eta estrategia eta proiektu amankomunak definitzeko. |
| **Ingurune Berritzaileen sendotzea** | Eskualdearen sustapen ekonomikoa, garapena eta berrikuntza bultzatzeko, beharrezkoak diren ingurune berritzaileetan sakondu eta sendotu. |
| **Abiatek-Industri Mapa** | Eskualdean enpresak daukaten ezagutza/gaitasun teknologikotik abiatuta, zein hazkundean diren produku/merkatuetara zuzen daitezke? Jauzi hori errazteko egin beharreko batzuk iradokitzen saiatuko gara eta Eskualdeko Mapa Industiala abiaburu eta eskualdeak aurretik definituta duen Estrategia aintzat ere hartuz. |
| **Bizilabe Proiektua** | Eskualdean, hezkuntza ez arautuan, gaztetxoen artean zientzia eta teknologia alorrei lotutako gaitasun eta zaletasunak sustatzeko ekimenak abian jarri. Eragile ezberdinen artean lankidetza sustatuz, gaztetxoentzat eskaintza egituratu. |
| **IB Sarea Lankidetza** | Iraurgi Berritzenek helburu duen gobernantza eredua eta elkarlan publiko pribatuaren gauzapenerako erramintak, espazioak eta erabakitze organuak kudeatu. Enpresa, hezkuntza eta erakundeen arteko bisio amankomuna, elkarlana eta estrategia konpartituak adosteko kontseiluaren eta topaketen dinamikak aktibatu. |
| **Kontseilua IB Sarea** | Enpresa, ikastetxe eta udal ordezkariekin Sarearen Kontseilua aktibatu eta koordinatu, dinamika eta jarraipena bermatuz. |
| **IB Sarea Topaketak** | Enpresa,ikastetxe eta eta udal ordezkarien artean, eskualdearen sustapen ekonomikoari dagokionez topagunea konpartitu helburu desberdinekin: eragileek abian diren ekintza eta proiektuen berri eman eta jasotzea, gune eta eragile desberdinen arteko elkartruke eta aurrera begirako proposamen eta hausnarketak partekatu. |
| **Garapen Behatokia** | Informazio eta estatistika iturri ezberdinak erabiliz, eskualdeko egoera sozioekonomikoaren azterketa eta kontrastea. Besteak beste, eskualdeko ehun ekonomikoa, lan merkatua, adierazle ekonomikoak eta adierazle demografikoak ditu lan lerro honek aztergai. |
| **Gipuzkoa Sarean** | Gipuzkoa Mailan, lurralde garapen eta orekaren ikuspegitik eskualde arteko elkarlanerako GFAtik sustatzen diren egitasmoetan parte hartu |
| **IB Eredua Berrikuntza** | Iraurgi Berritzenen adosturiko estrategia jarraituz , bere antolaketa eta lan ereduaren etengabeko berrikuntza sustatzea da helburua honek sustatuko dituelarik hainbat berrikuntza arlo desberdinetan : barne antolaketa, ergaileekin elkarlana, proiektuen araberako kudeaketa , ERP eta IKT en erabilera , komunikazioa, pertsonen etengabeko formakuntza. |

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | | HELBURUA |
|---|---|---|
| **Enpresa Arloa** | | Eskualdeko enpresen lehiakortasuna, garapena eta eraldaketa sustatu, enpresen beharren arabera proiektuak garatuz, enpresa ordezkariekin elkarlanean eta lan talde teknikoa koordinatuz. |
| **Enpresa Gunea** | | Eskualdeko enpresa ordezkariek osaturiko elkarlan espazio dinamizatu, enpresen ikuspegitik behar amankomunen arabera proiektuak garatzeko. |
| **Kapazitazioa** | | Eskualdeko enpresen berrikuntzarako gaitasunen egokitzapena sustatu kapazitazio prozesu desberdinen bitartez: sensibilizazio eta esperientzi onen partekatzea , eta proiektu konkretuen aplikazioa. |
| | **Ikasiz Proiektua** | Eskualdeko enpresen kudeaketa eta esperientzi onak identifikatu arlo desberdinetan ( teknologikoa, kudeaketa etab..) eta enpresen artean konpartitu , sensibilizazio eta ikasketa prozesu moduan, esperientzi onak biderkatzeko eskualdeko enpresa artean. |
| | **Ikas Ekin Proiektua** | Eskualdeko enpresen gaitasunak garatzen lagundu, ekintzara bideraturiko formakuntza metodologiaren bitartez: enpresaren proiektu konkretu baten aplikazioan oinarrituz eta beste enpresekin konpartituz formakunzta prozesua |
| **Lehiakortasuna** | | Eskualdeko enpresen lehiakortasuna bultzatu |
| | **Hobekuntza eta berrikuntza teknologikoa** | Lehiakortasun eta berrikuntzaren eragile traktore izan, bailarako enpresen lehiakortasun eta I+G+bko eskaeraei erantzune |
| | **UrEraldatuz** | Urola erdiko enpresetan antolakuntza eta kudeaketa ereduen eraldaketa sustatzea. Pertsonen partaidetza sustatu, estrategian eta antolakuntzan lagundu, enpresako arlo guztien kudeaketa hobetu, kokudeaketa. |
| **Diru Laguntzen Bitartekaritza** | | Enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzeko laguntzen deialdian etengabeko zaintza eta proiektuen eskaerak eta justifikazioak bideratu |
| **RIS 3 Egitasmoa** | | RIS3 egitasmoak lantzen dituen ildoak, eskualdeko enpresei proiektu konkretuen bitartez bultzatu eta garatu |
| | **Hornitu III** | Urola Erdiaren sektore industrialaren aktibitatea handitzea eta indartzea du helburu, enpresa txikien garapena eta lehiakortasuna bultzatuz, enpresa traktore eta hornitzaileen arteko elkarlanaren bitartez. |
| | **Harremantzen 4.0** | Eskualdeko indutria ehunean, digitalizazioa oinarri hartuta, bezero eta hornitzaileen arteko harremanak sendotu eta efizienteago egitea nahi duen proiektu esperimentala da. "Lantegi Hedatua" kontzeptuaren aplikazio pilotua jarri nahi da abian Urola Erdiko enpresa traktore eta hornitzaileen artean. |
| | **Ur3Dtzen II** | Zuzenki, proiektuaren helburua, Zerrautsetik eta Zur Lohietatik balioztatutako materiale berriak eskualdeko enpresetan lehengai gisa erabiltzea izango da |
| | **Industria 4.0** | Urola Erdiko enpresetan, Industria 4.0ren inguruan GFAk eta EJ dituzten estrategiekin bat eginez, eskualdeko enpresetan Industria 4.ren barne kokatzen diren teknologien ezagutza eta aplikazioa zabaltzea du helburu beraien lehiakortasuna hobetzeko asmoz, |
| **Eskualdea Irekitzea** | | Zestoako enpresekin harremanak estutzea |
| **Enplegua Enpresetan** | | Eskualdeko enpresen aldetik dauden enplegu aukerak identifikatu eta bertako pertsonekin erantzuna ematea da helburu. Horretarako enpresen aldetik sortzen diren enpegu eskaintzak eta praktiketarako perfilen beharrak jaso eta kudeatuko dira enplegu arloarekin. Azken helburua eskualdearen langabezia tasa murriztea eta industria jarduerako enplegua eskualdean aktibatzea da, bertako talentua mantenduz. |

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | | HELBURUA |
|---|---|---|
| **Hezkuntza Arloa** | | Hezkuntza arloaren helburu estrategikoak jomuga, baliabideak efizientziaz eta modu elkarbanatuan kudeatzeko beharrezkoak diren ekintza eta zereginak. |
| **Ikastetxeen Mahaia** | | 1) Ikastetxeetako zuzendarien artean elkarlanerako espazioaren dinamizazioa, non behar amankomunak identifikatu eta elkarlanean proiektu konkretuen garapena erabakiko den. 2) Udal ordezkariekin elkarlanerako eta koordinaziorako espazioaren sorrera eta kudeaketa. |
| | **Elkarrekin Eraikitzen** | Eskualdeko ikastetxeak elkarlanean landutako proiektu honek 3 helburu nagusi ditu: 1) Ikasleek ekintzailetzarako beharrezko dituzten balioak barneratu eta gatasun ezberdinak trebatzea. 2)Ikasleek eskualdeko errealitate sozioekonomikoaren berri izatea. 3) Irakasleei irakaskuntza metodologia berritzaileak landu eta aplikatzeko aukera eskaintzea. |
| | **Izan Ekintzaile!** | Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak: 1) Ikasleek ekintzaile desberdinen bixzipenak gertutuk ezagutu eta beharrezko hgaitasunen inguruan hausnartzea. 2) Irakasleei dinamika desberdinak aplikatzen laguntzea. 3) Ekintzailetza jarduerari bisibiliattea ematea... |
| | **Gerolan-Orientazioa** | Ikasleei eskualdeko ehun ekonomikoaren berri eman eta heuren ikasketa ibilbidean egin beharreko hautaketarako informazioa eskaintzea. Orientazio bideak errazteko eragile desberdinen arteko input-ak gertutasunetik elkartrukatzea, iniziatiba edo proiektu aukera desberdinak aztertuz. |
| | **Zientzia eta Teknologia** | Ikastetxeei zientzia eta teknologiaren inguruko ezagutzen transferentzia, bakoitzaren beharretara egokitutako proiektu pilotuen exekuzioaren bitartez. |
| | **Internet eta Sare Sozialak** | Ikastetxeen mahaian hautemandako beharra, modu amankomunean lantzeko sortu zen espazioaren transferentzia egokian jarraipena eta laguntza. |

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | | HELBURUA |
|---|---|---|
| **Enplegu eta Prestakuntza Arloa** | | Eskualdean enplegua eta prestakuntza sustapenerako tokiko politika integrala garatu: bailarako langabe eta langabetu kolektiboei egokitutako programa, zerbitzu, ekintza eta ikastaro desberdinak antolatuz, bailarako enplegu eta prestakuntza eragileekin elkarlanean eta baliabide eta lan taldea teknikoa kudeatuz. |
| **Enplegu Eragileen Gunea -Urolanprest-** | | Eskualdeko enplegu eta prestakuntza ordezkariek osaturiko Urolanprest elkarlan gunea dinamizatu, eragileen ikuspegitik behar amankomunen arabera proiektuak garatzeko. |
| **Enplegu Zentroa** | | Urola Erdian lana aktiboki bilatzen ari den edonori enplegua eta prestakuntzari buruz beharrezko duten informazio, orientazio eta aholkularitza eman eta eskualdeko enpresen lan eskaintzak jaso, hautagaiak aurkeztu eta laneratze tasaren jarraipena egin. |
| **Lan munduratze programak** | | Eskualdeko langabetu kolektibo desberdinei egokituriko lan munduratze programak definitu eta exekutatu eskualde bertan, langabezia tasaren murrizpena lortzeko. |
| | **Hazilan** | Urola Erdiko 20 eta 44 urte bitarteko langabezian dauden gazte kualifikatuen lan-munduratzea, laguntza zerbitzu baten bidez ondorengo helburu espezifikoak lortu nahian: 1) Onuradunak aktibatu lan-bilaketako ibilbide osoan zehar, 2) Enpoderatu eta zeharkako gaitasun sozio-profesionalak hobetzea, 3) Gaitasun profesionalak hobetu eta lan-postuko esperientzia lortzea. |
| | **Txertatu Merkatuan** | Urola Erdiko 16 eta 30 urte azpiko langabezian eta hezkuntza-prestakuntza sistematik kanpo dauden kualifikazio baxuko gazteen lan-munduratze edo ikasketa prozesuetan partehartzea bultzatu eta bideratzea. Horretarako, honako helburu espezifikoak bilatzen dira: 1) Integrazio sozio-laboraleko ibilbide pertsonalizatuen garapena, 2) Gizarte-hezkuntza esku-hartze gunea sortu, erantzukizuna, jarrerak eta bizitza estilo egokiak bultzatzeko, 3) Merkatuak eskatzen dituen gaitasun teknikoak garatu. |
| | **Lehen Aukera Programa** | Titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek kontratatzeko oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lanbide-esperientzia lortu eta haien laneratzea sendotzearen bidez. |
| | **Bidelan Programa** | Partaideen gaitasun pertsonalak eta profesionalak landuz, Enplegu eta Prestakuntzan bide berri bat sortu. |
| **Langabetuentzat Prestakuntza** | | Langabetuei zuzenduriko formakuntza beharrak identifikatu, exekutatu edota beste eragileek dituzten eskeintzetara bideratu. |
| | **Ikaslan Programa** | Langabetuentzat lan aukerak eskeintzen dituzten formakuntza beharrak identifikatu, bideratu dauden eskeintzetara edota ikastaroak antolatu beste eragileekin elkarlanean. |
| **Orientazio Zentroa** | | Urola Erdiko langabe edo enplegua hobetu nahian ari diren langile eta, oro har, enplegua modu aktiboan bilatzeko interesa duen edonori, arreta espezializatua eta banakakoa eman lan eta prestakuntza aukerak hobetzeko eta lana dutenen enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna lortzeko. |
| | **Gerolan-Orientazioa** | Lanerako orientazio programa egokitua diseinatu eta exekutatu eskualdeko gazteei zabaltzeko ikastetxeetan, orientatzaileekin elkarlanean. |
| **Komunikazioa: www.urolanprest.eus** | | Urola Erdiko enplegua, orientazioa eta lan-prestakuntzarako eragileen eskaintza eta informazio bateratua eta eguneratua jasotzeko erreferentziazko topagunea elikatu, kudeatu eta eragileekin koordinatu. |

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | HELBURUA |
|---|---|
| **Merkataritza Arloa** | Eskualdeko merkataritza lehiakorrago egitea, elkarteen arteko elkarlana sustatuz |
| **Merkataritza Gunea** | Eskualdeko merkataritza lehiakorrago egitea, elkarteen arteko elkarlanaren sustatuz |
| MerkaUrola 2.0 | Egungo merkataritza egoeraren azterketatik abiatuz eta eskualdeko merkataritzan eragina duten eragile ezberdinen arteko koordinazio eta lankidetzan sustatuz, eskualdeko estrategiaren hausnarketa eta lan lerro amankomunak |

| LAN LERRO ETA PROIEKTUAK | **HELBURUA** |
|---|---|
| Turismo Arloa | Arloaren kudeaketa orokorra; Planifikazioa, koordinazioa, erakunde arteko harremanak gauzatu eta erraztea, dirulaguntzen kudeaketa eta eredu berriaren zehaztepenerako bidea egitea. |
| Lehiakortasun Turistikoa | Eskualdeko enpresa turistikoen lehiakortasuna bultzatzea erakunde publikoetatik horretarako prestatzen diren programa bereziak eskualdean ezarriz eta agentziatik bertatik ateratzen diren ekimen propioak martxan jarriz. |
| Urola Gustagarri-Pto. Turistiko Gastronomikoa | Urola Erdiko produktu turistiko gastronomikoaren garapena, sustapen turistikoa eta merkaturatzea gauzatzea, bertako produktuak, ekoizleak, suksaldariak eta ostalariak ardatz dituela. |
| Inaziotar Bidea | Inaziotar Bidea dinamizatu eta sustatzeko sortu den erakunde arteko mahaian parte hartu, ekintza desberdinak diseinatu eta planfikatu eta berauen ejekuzioan parte hartu, Basqeutourekin koordinatuta. |
| Inaziotar Lurraldea | Inaziotar Bidearen testuinguruan, turismo kultural, erlijioso eta erromesaldien segmentuko eskaintza turistikoa sortu,garatu eta sustatzea, Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena eskualdeen lurralde eremuan eta hiru eskualdetako erakundeen elkarlan eta koordinaziopean. |
| Natur Turismoa | Eskualdeko natur baliabideak balorean jarri, beraien inguruan eskaintza turistikoa gauzatu sustatu eta merkaturatu. |
| 5 Geltoki Historian | Familia turismoari zuzendutako Urola Baialrako produktu turistiko berezia sortu, garatu, sustatu eta merkaturatu, bertako museo eta espazio desberdinen inplikazioa bultzatuz. |
| Produktu Turistiko Berriak | Produktu turistiko berrien sorrera eta garapenerako nitxo eta aukera berriak aztertu eta identifikatzea. |
| Sustapena eta Merkaturatzea | Eskaintza turistikoaren (produktuak, baliabideak eta zerbitzuak) sustapena eta merkaturatzea unean uneko kanak egokienak erabiliz merkatu segmentu egokietara bideratuta. |
| Aholkularitza | Eskualdeko udalerrien nahiz beste eremutako eragile desberdinen proiektuetan aholkularitza edo bitartekaritza lanak egitea. |
| Turismo Bulegoa | Eskauldeko Turismo bulegoaren (Loiola) funtzionamendua eta zerbitzua bermatzea urte guzian zehar; Bisitarien harrera eta harreta, baliabide eta produktu tristikoen sustapen eta salmenta, eta eskualdeko jarduera turistikoaren antena lanak. |

iraurgi Berritzen

www.iraurgiberritzen.eus